

# SAN JOAN BATAIATZAILEA ELIZAREN ALDI HISTORIKOAK

## AURRE XEHETASUNAK

Badirudi XV. mendean funtsean eginik zegoela gaurregun ezagutzen dugun goiko eliza. Geroztik, ordea, zenbait erreforma eta eraberrikuntza jasan izan zituen. Adibidez, ifar eta hego aldetara kaperak erantsi zitzaizkion arkuz, sabaiz eta teilatuz hornituak. Elizaurrea eta kanpandorrea ere eraldatuak izan ziren.

Guzti hauen berri zehazkiago ematen dugu ondoko lerroetan.

## ELIZ ERAIKUNTZAREN EBOLUZIOA (1.557 - 1.630)

Udal artxibategian dagoen eskuizkribu baten dioenez, Domingo de Sanz Sorok, Aiako haragin maisua berau, bere gain hartu zuen sei urtetan goiko eliza zabaldu eta erreformatzeko erantzukia 1.600 dukaten truke, Lezoko bikario eta eliz ugazabekin egindako akordio baten bidez, 1.557. go Maiatzaren 23an.


Ordurako hornitua aurkitzen zen ifarraldeko hormaren arabera egin beharra zuen hegoaldekoa, hiru kaperaz osatua. Erdiko kaperak, ordea, alboko atari bilakatuko zen (gaurregun goiko plazara ematen duena, alegia). Hemen, ezkerreko kontrahorman, ate bat irekiko zen goragoko kaperatxora pasatzeko, non bataioko ponteak kokatuko bait zen.

Elizaren aurrekaldeko eta alboko atariak Usurbilgo elizakoaren jite eta tankera berekoak beharko zuten izan. Kanpandorrea eta kororako eskailerak, berriz, Errenteriako eliz nagusiaren erakoak.

Eliz langintza guztia Jaizkibelgo hondar harriz, ohi bezala, eta lehengo eliz zaharreko materialez burutuko zen.

## ERRETAULA NAGUSIA ETA ALBOKO ALDAREAK (1.628 - 1.667)

1.628tik hasita 1.663 urte bitartean aldare nagusiko erretaulan egin ziren lanen aipamenak datozkigu, zeinetan Migel Goroa entsanblari asteasuarra eta Diego Maiora eskulturgile segurarra ihardun ziren (1.628-1.635). Ondoren, Otxoa Arin jauna erretaula urreztatzeari eman zitzaion (1.656-1.663). Migel Goroa eta Diego Maiora, zinez, Ambrosio Bengoetxea ospetsuaren eskolakoak bide ziren.





1.633-1.676ko epean alboko kaperetako aldareen berriak ditugu, hala nola: Antiguako Andre Maria, San Jose, Trinitate, San Sebastian eta Karmengo Andre Mariarenak. Azken kapera hau Lezoandiako aiton-seme zen Joan Nuñez de Yerobiren sendiari zegokion. Erretaula nagusiaren aldamentako aldareak oso berandukoak dira (1.892).

### **GAURDAINOKO AZKEN EGINLANAK. KOROA. (1.710 - 1.931)**

1.710ean erretaula berriz urreztatzeko fundazioa sortu zuen F. Zubitola jaunak.

1.813 eta 1.814an goiko elizan alokaturik egon ziren ingeles gudarosteak frantsesei surre egiteko. Han egon ziren bitartean eginiko kalteen zerrenda, beren gosto eta guzti, iritsi zaigu paper zaharretan.


1.825an Franconi margolari italiarrak eliz barnea kareztatu eta margotu egin zuen, Gurutze Santuaren santutegian bezalaxe.

1.892-1.894an, eta Kortazar arkitektoaren gidaritzapean, koruko balkoneria eraiki zen eta leihoa ireki gaurregun dagoen organoa ezartzeko. Aldi berean, ezker-eskuineko arku konopialak eta punduerdiko leihoa ere irekiak izan ziren eta eliz aterbeko eginlanak zuzenduak. Hiru urte geroago, beheko plazatik gorako eskailerak egin ziren.

1.914 eta 1.931 bitartean elizaurrearen alde bietako kaperak katekesi gela bihurtu ziren eta aldare nagusiaren oineko bi sarrera berriak ireki.

Hemen emandako azalpen historiko labur honek idazlan zabalagoa eskatzen da. Denbora gutxi barru ekingo diogulakoan gaude.


Jose Luis APERRIBAY





# SAN JOAN BATAIATZAILEA ELIZA

## Mendebaldeko horma




### ERABERRIALDIAK

- 1 .- XV. mendekoa
- 2 .- XVI. mende erdikoa
- 3 .- XIX. mende bukaera - XX. mende hasierakoa



Hegoaldeko horma



ERABERRIALDIAK

- 1 .- XV. mendekoa
- 2 .- XVI. mende erdikoa
- 3 .- XIX. mende bukaera - XX. mende hasierakoa